

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA ERANDIOKO UDALAREN ARTEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA, ERANDIOKO UDAL MUGARTEAN BIZIKLETA ERABILIZ TOKIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIA SUSTATZEKO. HORRETARAKO, DIRULAGUNTZAK EMANGO DIRA BIZIKLETEN APARKALEKU SEGURUA EGOKITZEKO ETA EKIPATZEKO LANETARAKO, HAIN ZUZEN ERE DIRULAGUNTZA HAU ERAGIN DUEN ZERBITZU PUBLIKOA (HAU DA, BIZIPARK - ERANDIO ZERBITZUA) ABIARAZTEKO BEHARREZKO ETA ALDEZ AURRETIKO LANETARAKO.

CONVENIO SUBVENCIONAL ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE ERANDIO CON EL FIN DE FOMENTAR LA MOVILIDAD SOSTENIBLE LOCAL MEDIANTE EL USO DE LA BICICLETA EN EL TERMINO MUNICIPAL DE ERANDIO, PARA LO CUAL SE PROCEDE A SUBVENCIONAR LOS CONCRETOS TRABAJOS CONSISTENTES EN EL ACONDICIONAMIENTO Y EQUIPAMIENTO DE APARCAMIENTO SEGURO DE BICICLETAS, TRABAJOS NECESARIOS Y PREVIOS PARA LA PUESTA A PUNTO E INICIO DEL SERVICIO PÚBLICO QUE MOTIVA LA PRESENTE SUBVENCION Y QUE RESULTA SER EL BIZIPARK - ERANDIO.

#### BILDU DIRA

Alde batetik, Sonia Perez Ezquerria, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFZ: P4800000D).

Eta, bestetik, Aitziber Oliban Gutiérrez, Erandioko alkatea, Erandioko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFZ: P4812400B).

#### SE REÚNEN

De una parte, D<sup>a</sup>. Sonia Perez Ezquerria, Diputada Foral del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia (NIF: P4800000D)

Y, de otra parte, D<sup>a</sup>. Aitziber Oliban Gutiérrez, alcaldesa de Erandio, actuando en nombre y representación del ayuntamiento de Erandio (CIF P4812400B).

#### ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko foru diputatu gisa, eta ekitaldi honetarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa. Horretarako, Foru Gobernuaren Kontseiluak ahalmena du aldeaz aurretik, 2025eko.....an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

#### INTERVIENEN

La primera, como Diputada Foral del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo, y para el presente acto en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, para lo cual se encuentra previamente facultada por acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral en la sesión celebrada el día ..... de 2025.



Bigarrenak, halaber, aipatutako karguagatik, Erandioko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz.

La segunda, también por razón de su expresado cargo, en nombre y representación del ayuntamiento de Erandio.

Bi alderdiek, esku hartzen dutenez, dirulaguntzei buruzko hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

Ambas partes, según intervienen, se reconocen entre sí la capacidad jurídica necesaria para la suscripción del presente Convenio Subvencional y a tal efecto.

## ADIERAZTEN DUTE

## EXPONEN

I.- Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, autonomia erkidegoko erakunde erkideen eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzkoak, ezartzen duenez, errepideko garraio mekanikoen arloko legegintza, arauen bidezko garapena, goi-ikuskaritza, plangintza eta koordinazioa autonomia erkidegoko erakunde erkideei dagozkie. Lurralde historikoen, beren mugartean, eta indarrean dauden Estatuarekiko itunen arabera, Arabak orain dituen ahalmenak eurak eta nolako berdinez erabiliko dituzte.

I.- La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, preceptúa que corresponden a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma las competencias de legislación, desarrollo normativo, alta inspección, planificación y coordinación en materia de transportes mecánicos por carretera ejerciendo los Territorios Históricos las mismas facultades y con el mismo carácter que en el presente ostenta Álava, dentro de su territorio, de acuerdo con los convenios vigentes con el Estado.

II.- Bizkaiko Foru Aldundiak foru eskumenak bere gain hartzeaz gain, araubide erkideko aldundiek garatzen dituzten eskumenak ere bere gain hartzen ditu, eta horien eginkizun nagusien artean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikulua arabera, honako oinarritzko hauek daude Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako lurralde historikoen bakoitzari dagokion lurralde-eremuan aplikatze aldera: prestazio osoa eta egokia bermatzeko udal-zerbitzuak elkarren artean koordinatzea, udalaz gaindiko eta, bidezkoa bada, eskualdeaz gaindiko zerbitzu publikoak ematea eta udalerrietako zerbitzuak euren lurralde eremuan bateratuta eman daitezen sustatzea eta, hala badagokio, koordinatzea.

II.- La Diputación de Bizkaia además de asumir las competencias forales asume las competencias que desarrollan las Diputaciones de régimen común, entre cuyo cometido principal y de conformidad con el artículo 36 dedicado a regular las competencias de la Provincia de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, de carácter básico y aplicable a los Territorios Históricos de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba/Álava, se encuentra tanto la coordinación de los servicios municipales entre sí para la garantía de la prestación integral y adecuada, como la prestación de servicios públicos de carácter supramunicipal y, en su caso, supracomarcal, y el fomento o, en su caso, coordinación de la prestación unificada de servicios de los municipios de su respectivo ámbito territorial.



III.- Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua xedatu duenaren arabera, udalek auzokide guztien komunitatearen beharrak eta nahiak betetzen lagunduko duten jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak eman ditzakete, betiere euren eskumenen esparruan, eta horien artean sartzen dira "Trafikoa, ibilgailuen aparkalekua eta mugikortasuna, eta hiriko garraio kolektiboa".

Udalerriek eskumen propioak dituzten eremu material hori bera aurreikusita dago Euskadiko Toki Erakundei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.32 artikuluan, honako baldintza hauetan, *"Pertsonen, ibilgailuen, motordunak izan edo ez izan, animalien eta pertsonen eta salgaien garraioaren mugikortasunaren eta irisgarritasunaren antolamendua, kudeaketa, diziplina eta sustapena beren titulartasuneko hiri-bideetan. Horretarako, beharrezkotzat jotzen diren baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak finkatu ahal izango dituzte"*.

IV.- Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legeak III. tituluko III. kapitulu mugikortasun jasangarria arautzen du, eta administrazioei agintzen die, euren eskumenen esparruan, mugikortasun jasangarriko politikak sustatzeko. Politika horiek garraio zerbitzu berriak ezartzeko printzipioa errespetatu behar dute, eta, horretarako, inbertsio-kostuekin eta mantentze-kostuekin bat datorren eskaera-bolumena izan behar dute. Edozelan ere, kontuan hartu behar dira, batetik, behar bezalako kalitatea, prezioa, segurtasuna duten aukerako moduak eta, bestetik, ingurumen-ebaluazioaren emaitzak.

Arau beraren 100. artikulua mugikortasun jasangarriko politikaren helburuak ezartzen ditu, eta helburu hauek izan beharko ditu:

1. Hiri-ingurumena eta herritarren osasuna

III.- Por su parte los municipios, por aplicación de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la cual establece en su artículo 25 las competencias de carácter municipal, dispone que estos pueden promover actividades y prestar los servicios públicos que contribuyan a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal, siempre en el ámbito de sus competencias, entre las que se incluyen como propias "Tráfico, estacionamiento de vehículos y movilidad, y Transporte colectivo urbano".

Este mismo ámbito material sobre el cual ostentan competencias propias los municipios también está previsto en el artículo 17.1.32 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en los siguientes términos *"Ordenación, gestión, disciplina y promoción en vías urbanas de su titularidad de la movilidad y accesibilidad de personas, vehículos, sean o no a motor, y animales, y del transporte de personas y mercancías, para lo que podrán fijar los medios materiales, técnicos y humanos que se consideren necesario"*.

IV.- La Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible reserva el Capítulo III del Título III a la movilidad sostenible, estableciendo un mandato a las Administraciones, en el ámbito de sus competencias, para la promoción de políticas de movilidad sostenible, que respeten principios como el del establecimiento de nuevos servicios de transporte, supeditado a la existencia de un volumen de demanda acorde con los costes de inversión y mantenimiento, teniendo en cuenta, en todo caso, la existencia de modos alternativos de la debida calidad, precio, seguridad, así como los resultados de su evaluación ambiental.

El artículo 100 de la misma norma establece los objetivos de la política de movilidad sostenible, que deberá perseguir:



eta segurtasuna hobetzen laguntzea, bai eta ekonomiaren eraginkortasuna ere, natura-baliabideen erabilera arrazionalagoari esker.

2. Hiri-garapeneko, garapen ekonomikoko eta mugikortasuneko politikak integratzea, ohiko joan-etorriak minimizatzeke moduan, eta oinarrizko zerbitzuetarako irisgarritasun eraginkorra, efizientea eta segurua erraztea, betiere ingurumen- inpaktu txikienarekin.
3. Energia-kontsumoaren murrizketa eta energia-eraginkortasunaren hobekuntza sustatzea. Horretarako, eskaria kudeatzeko politikak hartuko dira kontuan.
4. Gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta energiaren aldetik kostu txikiena duten garraio bideak sustatzea, bai pertsonentzat, bai salgaientzat, eta garraio publiko kolektiboaren eta motorizatu gabeko beste garraio bide batzuen erabilera sustatzea.
5. Garraio bideen modalitatea eta intermodalitatea sustatzea, ibilgailu pribatuarekiko bestelako garraio bideak eta sareak kontuan hartuta.

**V.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak 24. artikuluan ezartzen duenez, 5.000 biztanletik gorako udalerriek nahitaez izan behar dituzte hiri-mugikortasuneko planak. Era berean, 11/2023 Legea, azaroaren 9koa, Euskadiko mugikortasun iraunkorrari buruzkoak 16. artikuluan proposatzen du foru-aldundiak udalerriekin lankidetzan aritzea plan horiek egiteko.

1. Contribuir a la mejora del medio ambiente urbano y la salud y seguridad de los ciudadanos y a la eficiencia de la economía gracias a un uso más racional de los recursos naturales.
2. Integar las políticas de desarrollo urbano, económico, y de movilidad de modo que se minimicen los desplazamientos habituales y facilitar la accesibilidad eficaz, eficiente y segura a los servicios básicos con el mínimo impacto ambiental.
3. Promover la disminución del consumo de energía y la mejora de la eficiencia energética, para lo que se tendrán en cuenta políticas de gestión de la demanda.
4. Fomentar los medios de transporte de menor coste social, económico, ambiental y energético, tanto para personas como para mercancías, así como el uso de los transportes público y colectivo y otros modos no motorizados.
5. Fomentar la modalidad e intermodalidad de los diferentes medios de transporte, considerando el conjunto de redes y modos de transporte que faciliten el desarrollo de modos alternativos al vehículo privado.

**V.-** La Ley 4/2019 de sostenibilidad energética de la Comunidad Autónoma del País Vasco establece en su artículo 24 la obligatoriedad para los municipios con más de 5.000 habitantes de tener Planes de Movilidad Urbana. Asimismo, la Ley 11/2023, de 9 de noviembre, de movilidad sostenible de Euskadi propone en su artículo 16 que las Diputaciones Forales colaboren con los municipios en la elaboración de dichos planes.

En cumplimiento del mandato legal previamente



Aurrekoan aipatutako aginduari jarraituz, 2022ko apirilaren 27an, Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko zuzendari nagusiak bizikletentzako aparkaleku seguruak jartzeko dirulaguntzak emateko prozesuan parte hartzeko gonbidapena bidali zien 5.000 biztanle edo gehiago dituzten Bizkaiko 33 udalei.

**VI.-** Bi erakundeen lehenetsuneko helburuen artean dago mugikortasun jasangarria sustatzeko xedea, eta hori erdiesteko eretako bat bizikletaren erabilera sustatzea da, ohiko joan-etorrietarako, lurraldean erabilera hori bultzatzen lagunduko duten azpiegiturak eraikiz.

**VII.-** Era berean, bi erakundeak bat datoz bizikletaren eta beste garraio bide batzuen arteko intermodalitatea bultzatzeko helburuan, batez ere zerbitzu publikoek eskaintzen dituztenak.

**VIII.-** Mugikortasun jasangarria sustatzeko partekatutako esparru estrategiko horretan, dirulaguntza bat bideratzen da hitzarmen bidez, bizikleten aparkaleku seguru egokitzeko eta ekipatzeko lan zehatzetarako. Lan horiek beharrezkoak eta aurretikoak dira dirulaguntza hau eragin duen zerbitzu publikoa (*BiziPark - Erandio*) doitzeko eta hasteko.

**IX.-** Azalpen zatian zehaztutako helburuak betetzeko, dirulaguntzen hitzarmen hau sinatzea bizikletentzako aparkaleku seguru egokitzeko eta ekipatzeko lanetarako. Lan horiek beharrezkoak eta aurretikoak dira dirulaguntza hau eragin duen zerbitzu publikoa abian jarri eta hasteko. Hau da, Erandioko bizikletentzako aparkaleku segururako ekipamendua zerbitzuan jartzeko (aurrerantzean, *BiziPark- Erandio*; hori guztia honako hauen arabera

citado, con fecha 27 de abril de 2022 el director general de Movilidad Sostenible remitió a los 33 Ayuntamientos de los municipios de Bizkaia con 5.000 o más habitantes, invitación a participar en el proceso de concesión de subvenciones destinadas a la instalación de aparcamientos seguros para bicicletas.

**VI.-** Que ambas instituciones tienen entre sus objetivos prioritarios el fomento de la movilidad sostenible, entre cuyos modos se encuentra el fomento del uso de la bicicleta para desplazamientos habituales, dotando para ello al territorio de infraestructuras que contribuyan a favorecer dicho uso.

**VII.-** Que del mismo modo ambas instituciones coinciden en el objetivo de favorecer la intermodalidad entre la bicicleta y otros modos de transporte, preferentemente los que ofrecen los servicios públicos.

**VIII.-** Que en este marco estratégico compartido para el fomento de la movilidad sostenible se procede a vehiculizar vía convenio una subvención para los concretos trabajos consistentes en el acondicionamiento y equipamiento de aparcamiento seguro de bicicletas, trabajos necesarios y previos para la puesta a punto e inicio del servicio público que motiva la presente subvención y que resulta ser el *BiziPark - Erandio*.

**IX.-** En cumplimiento de los objetivos definidos en la Exposición, suscribir el presente Convenio Subvencional para los concretos trabajos de acondicionamiento y equipamiento de aparcamiento seguro de bicicletas, trabajos necesarios y previos para la puesta a punto e inicio del servicio público que motiva la presente subvención, y que resulta ser el de aparcamiento seguro para bicicletas en Erandio, en adelante *BiziPark- Erandio*, todo ello conforme a las siguientes



## KLAUSULAK

## CLAUSULAS

### LEHENENGOA. - XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Erandioko udalerrian tokiko mugikortasun jasagarria sustatzea bizikletaren erabileraren bidez. Horretarako, diruz lagunduko dira bizikletetarako bi aparkaleku segurua egokitu eta ekipatzeko lan konkretuak, zeinak aurrez egin beharrekoak baitira dirulaguntza hau eragin duen zerbitzu publikoa, hau da *BiziPark-Erandio* zerbitzua, haxean ezarri eta abiarazteko.

Dirulaguntza honen izaera berezia dirulaguntza kudeatzen duen organoak 2025eko azaroaren 5ean egindako txostenean oinarritzen da, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 52.3 artikuluan jasotako eskakizunetan oinarrituta.

### BIGARRENA. -KOPURUA AURREKONTUETAKO KREDITOA

Bizkaiko Foru Aldundiak 70.000,00 €-ko ekarpen ekonomikoa egin du lan horiek egiteko, hitzarmen hau sinatzean egiten den entrega bakarrean. Horretarako, ondorengo partidan gaitutako kreditua dago: 0605 zentro kudeatzailea, 441122 programa, 73299 programa ekonomikoa, 2019/0102 proiektua.

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako zenbatekoa nahikotzat jotzen da diruz lagun daitekeen inbertsioaren gastuei aurre egiteko, eta ezin izango da, inola ere, zenbateko gehigarririk erreklamatu.

Ekarpen ekonomikori dirulaguntza da, beraz,

### PRIMERA. - OBJETO

El presente convenio tiene por objeto el fomento de la movilidad sostenible local mediante el uso de la bicicleta en el término municipal de Erandio, para lo cual se procede a subvencionar los concretos trabajos consistentes en el acondicionamiento y equipamiento de aparcamiento seguro de bicicletas, trabajos necesarios y previos para la puesta a punto e inicio del servicio público que motiva la presente subvención y que resulta ser el *BiziPark-Erandio*.

El carácter singular de la presente subvención viene motivado en el informe emitido el 5 de noviembre de 2025 por el órgano gestor de la subvención, en base a las exigencias contenidas en el artículo 52.3 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

### SEGUNDA. - CUANTIA Y CREDITO PRESUPUESTARIO

La aportación económica por parte de la Diputación Foral de Bizkaia para la ejecución de los trabajos mencionados es de 70.000,00 €, en una única entrega cuyo pago se activa en el acto de firma del presente Convenio. Para ello, existe crédito habilitado en la siguiente partida: centro gestor 0605, programa 441122, económico 73299, proyecto 2019/0102.

La cantidad aportada por parte de la Diputación Foral de Bizkaia se considera suficiente para hacer frente a los gastos de la inversión de carácter subvencionable, y en ningún caso podrá ser reclamada cantidad adicional alguna.

Esta aportación económica tiene carácter de subvención, por tanto, la justificación del gasto





egindako gastuaren justifikazioa bat etorri beharko da Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan eta Foru Arau hori garatzen duen eta Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuan ezarritakoarekin.

Diruz lagundutako lan zehatzen justifikazioa Mugikortasun Atalean aurkeztu beharko da, egindako gastua justifikatzeko kontu sinplifikatu baten bidez.

Emango duen dirulaguntza itzultzeko arrazoiak arautzen dituen klausulak esaten duenari kalterik egin gabe, justifikatu gabeko zenbatekoak itzuli egin beharko dira, aipatutako araudiaren arabera.

#### **HIRUGARRENA. - HELBURU BERBERERAKO BESTELAKO DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA EDO DIRU-SARRERAREKIN BATERAEZINTASUNA**

Hitzarmen honen bidez emandako dirulaguntza bateraezina da helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik, nazioaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik badatoz.

#### **LAUGARRENA.- ONURADUNEN BETEKIZUNAK**

Erandioko Udalak adierazten du ez duela inolako debekurik onuradun izateko, 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan aurreikusitako moduan.

#### **BOSGARRENA. - UDALAREN ZERGABETEBEHARRAK, GIZARTE SEGURANTZAREKIKO BETEBEHARRAK ETA DIRULAGUNTZAK ITZULTZEAGATIKO BETEBEHARRAK.**

Erandioko Udalak konpromisoa hartzen du

realizado deberá adecuarse a lo exigido en la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración, y por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de dicha Norma Foral.

La justificación de los concretos trabajos subvencionados deberá estar presentada ante la Sección de Movilidad mediante una cuenta justificativa simplificada del gasto realizado.

Sin perjuicio de lo dispuesto en la cláusula que regule las causas para los reintegros, procederá el reintegro de las cantidades no justificadas de acuerdo con la mencionada regulación.

#### **TERCERA. - INCOMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES, AYUDAS O RECURSOS PARA LA MISMA FINALIDAD**

La subvención otorgada a través de este convenio es incompatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos con la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o Entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

#### **CUARTA. - REQUISITOS DE LA PERSONA BENEFICIARIA**

El Ayuntamiento de Erandio declara no estar incurso en prohibición alguna para acceder a la condición de persona beneficiaria, en los términos previstos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005.

#### **QUINTA. - OBLIGACIONES MUNICIPALES DE CARÁCTER TRIBUTARIO, CON LA SEGURIDAD SOCIAL Y POR REINTEGRO DE SUBVENCIONES.**

El Ayuntamiento de Erandio se compromete a estar al corriente en el cumplimiento de las



zerga\_betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateko, dirulaguntzak itzultzeko prozeduraren ebazpen bidez sortutako zorrei dagozkienak barne, 34/2010 Foru Dekretuaren 16. artikulua aurreikusten duen bezala.

obligaciones tributarias y con la seguridad social, incluidas las correspondientes a deudas generadas por resolución de procedimiento de reintegro de subvenciones, tal y como prevé el artículo 16 del Decreto Foral 34/2010.

## SEIGARRENA. - DIRUZLAGUNDUA DEN JARDUERAREN EGIKARATZEKO EPEMUGA.

## SEXTA - PLAZO DE EJECUCION DE LA ACTIVIDAD OBJETO DE SUBVENCION

Dirulaguntzaren xede den jarduera gauzatzeko epea urtebetekoa da, hitzarmen hau sinatzen denetik kontatzen hasita.

El plazo para la ejecución de la actividad objeto de la subvención es de un año contado desde la firma del presente convenio.

Nolanahi ere, dirulaguntzen hitzarmen honen xede diren lanak diruz lagundutako gastuen justifikazioa aurkeztu aurretik amaitu beharko dira. Justifikazio hori Mugikortasuna Ataleko langileek egiaztatuko dute.

En cualquier caso, la ejecución de los trabajos objeto del presente convenio subvencional deberá finalizar antes de presentar la justificación de los gastos subvencionados que será comprobado por personal de la Sección de Movilidad.

Hortaz, hitzarmen honen bitartez sustatu nahi duen ekintza, hots, *BiziPark-Erandio*, martxan egon beharko da diruz lagundutako gastuen justifikazioa aurkeztu baino lehen. Jardueraren hastapena egiaztatzeko zeregina Mugikortasun Ataleko pertsonalaren ardura izango da.

Así, el inicio de la actividad objeto de fomento vía el presente convenio subvencional, el *BiziPark-Erandio*, deberá ser puesta en funcionamiento antes de presentar la justificación de los gastos subvencionados. La comprobación del inicio de la actividad será fiscalizada por personal de la Sección de Movilidad.

Kontrol honen guzti honen emaitza esandako Mugikortasun Atalak egin beharreko akta batean jasoko da, zeinetan antzeman diren gorabehera guztiak batuko diren, 34/2010 Foru Dekretuaren 69. artikuluekin bat etorritik.

El resultado de toda esta fiscalización será recogido en un acta de comprobación a realizar por la Sección de Movilidad, donde se reflejarán en su caso todas las incidencias detectadas, tal y como dispone el artículo 69 del Decreto Foral 34/2010.

Erandioko udalak hartuko du bere gain BiziPark zerbitzuaren kudeaketa.

La gestión del BiziPark será asumida por el Ayuntamiento de Erandio.

## ZAZPIGARRENA.- DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

## SÉPTIMA.- PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

BiziPark-Erandio jarduerarekin lotuta diruz lagundu beharreko kontzeptuak egin izanaren azken justifikazioa, bizikletak seguru aparkatzeko egokitzapen- eta ekipamendu-obretan gauzatzen

La justificación final de la realización de los conceptos a subvencionar relacionados con la actividad *BiziPark-Erandio*, y que se concretan en las obras de acondicionamiento y equipamiento



direnak, Mugikortasun Atalean aurkeztu beharko da hiru hilabeteko epean, hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

Kontrol honen guzti honen emaitza esandako Mugikortasun Atalak egin beharreko akta batean jasoko da, zeinetan antzeman diren gorabehera guztiak batuko diren, 34/2010 Foru Dekretuaren 69. artikuluekin bat etorritz.

### **ZORTZIGARRENA. - DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK**

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan aurreikusitako ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta dirulaguntzen oinarri arautzaileek ezarritako epean egiten direnak.

### **BEDERATZIGARRENA. - AZPIKONTRATAZIORAKO BALDINTZAK**

Ez da azpikontratazioa baztertzen, eta ez da haren zenbatekoa mugatzen diruz lagundutako lanak eta jarduerak gauzatzeko. Hala ere, azpikontratazio horri 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio.

### **HAMARGARRENA.. - EZ-BETETZEAK ETA ITZULKETAK**

Honako hauek izango dira dirua itzultzeko arrazoiak:

1. 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusitako dirulaguntza itzultzeko arrazoi diren ez-betetzeak.
2. 5/2005 Foru Arauaren 18. artikuluko 3. idatz-zatian jasotako kasuarekin bat etorritz, diruz

de aparcamiento seguro de bicicletas, deberá estar presentada ante la Sección de Movilidad en un plazo de tres meses a partir de la fecha fin de plazo de ejecución de las actividades previstas en este convenio.

El resultado de toda esta fiscalización será recogido en un acta de comprobación a realizar por la Sección de Movilidad, donde se reflejarán en su caso todas las incidencias detectadas, tal y como dispone el artículo 69 del Decreto Foral 34/2010.

### **OCTAVA - GASTOS SUBVENCIONABLES**

Se consideran gastos subvencionables, a los efectos previstos en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido por las diferentes bases reguladoras de las subvenciones

### **NOVENA. - CONDICIONES DE SUBCONTRATACION**

No se excluye la subcontratación ni se limita su cuantía para la ejecución de los trabajos y actividad objeto de subvención. No obstante, a dicha subcontratación le será de aplicación lo dispuesto por el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005.

### **DECIMA. - INCUMPLIMIENTO Y REINTEGROS**

Serán causa de reintegro las siguientes:

1. Los incumplimientos que constituyen causa de reintegro de la subvención previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005.
2. De conformidad con el supuesto contemplado en el apartado 3 del artículo 18 de la Norma Foral 5/2005, procederá el reintegro del



lagundutako jardueraren kostuaren gainean lortutako soberakina itzuli beharko da, bai eta dagokion berandutze-interesa ere.

exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada, así como la exigencia del interés de demora correspondiente.

#### **HAMAİKAGARRENA. - DIRULAGUNTZA ITZULTZEA NORBERAREN EKIMENEZ**

Aurreko klausulan aurreikusitako berariazko kasuak alde batera utzi gabe, onuradunak bere ekimenez, dirulaguntza osoa edo haren zati bat borondatez itzuli ahal izango du. Horretarako, dagokion ordainketa-gutuna eskatu beharko da aldeztu aurretik, eta bertan jasoko dira dagokien berandutze-interesak, 34 NF 5/2005 eta 76 DF 34/2010ko artikuluetan agertzen diren moduan

#### **DECIMOPRIMERA. - DEVOLUCIÓN DE LA SUBVENCIÓN POR PROPIA INICIATIVA**

Sin perjuicio de los supuestos específicos previstos en la cláusula precedente, la persona beneficiaria podrá proceder al reintegro voluntario de la subvención, de todo o parte de la misma, a iniciativa propia. Para ello, requerirá la previa solicitud de la correspondiente carta de pago, que incluirá los correspondientes intereses de demora previstos en el art. 34 NF 5/2005 y art. 76 DF 34/2010

#### **HAMARGARRENA. - BERMEEN ARAUBIDEA**

Erandioko Udalarik ez zaio bermerik eskatuko, ez baita ikusten hitzarmen honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeko arriskurik.

Hori guztia, dena dela, eta hala badagokio, eta balizko ez-betetzeen aurrean, erantzukizunak eskatzeko, itzultzeko exijitzeko eta hitzarmena ez betetzeagatik erresoluzioa ebatzeko administrazio-prozeduraren bidez ekin ahal izango zaio.

#### **DECIMOSEGUNDA. - REGIMEN DE GARANTÍAS**

No será exigible la prestación de garantía por parte del Ayuntamiento de Erandio, por cuanto no se advierte riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este convenio.

Todo ello sin perjuicio de que, llegado el caso, y ante incumplimiento, se proceda a través del correspondiente procedimiento administrativo a la exigencia de responsabilidades, exigencia de reintegro y extinción por incumplimiento del convenio.

#### **HAMAHIRUGARRENA. - DIRULAGUNTZAREN FINANTZA-KONTROLA**

Erandioko Udalak eta dirulaguntzaren xedearekin zerikusia duten hirugarren pertsonak laguntza emateko betebeharra ezartzen da, 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

#### **DECIMOTERCERA - CONTROL FINANCIERO DE LA SUBVENCION**

Se establece la obligación de colaboración tanto del Ayuntamiento de Erandio como de las terceras personas relacionadas con el objeto de la subvención, en los términos previstos por el artículo 41 de la Norma Foral 5/2005.

#### **HAMALAGARRENA. - ALDERDIEN KONPROMISOAK**

1. Bizkaiko Foru Aldundiak, Erandioko Udalarekin koordinatuta eta ados jarrita,

#### **DECIMOCUARTA. - COMPROMISOS DE LAS PARTES**

1. La Diputación Foral de Bizkaia, en coordinación y de acuerdo con el Ayuntamiento de



udal liburutegiaren ondoko lokala (Legazpi kalea 2) egokitzeko eta ekipatzeko lanak zehaztu eta finantzatuko ditu, bigarren klausulan xedatutakoaren arabera. Lokal hori udalak berak jarriko du zerbitzuaren eskura.

2. Erandioko Udalak, 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan dirulaguntzen onuradunentzat aurreikusitako betebeharez gain, Legazpi kaleko 2. zenbakian dagoen Udal Liburutegiaren ondoko egokitze-lanak eta tokiko ekipamendu-lanak egin beharko ditu, bai eta BiziPark-Erandio zerbitzua abian jarri ostekoak ere. Gainera, konpromisoa hartzen du tokiko egoitzan legez nahitaezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak kudeatzeko, hitzarmenaren xedearen ondorioetarako.

Gutxienez, gune horrek ekipamendu hau izango du:

- Gutxienez 70 bizikletarentzako aparkalekua.
- Kudeaketa softwarea, Interneteko konexioa eta, hala badagokio, sarbidea kontrolatzeko sistema barne.
- Barne-argiztapen iraunkorra.
- Gutxienez suaren aurkako 16 armairu, banakako hartune elektrikoarekin.
- Udaltzaingoaren segurtasun-zerbitzuarekin konektatutako kameraren bidezko zaintza-sistema.
- Espazioa pertsonalizatzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarraibideei jarraituz, Bizkaiko Bi-

Erandio, definirá y, de conformidad con lo dispuesto en la cláusula segunda, financiará los trabajos de acondicionamiento y equipamiento de local adyacente a la Biblioteca Municipal, en la calle Legazpi nº 2, puesta a disposición del servicio por el propio ayuntamiento.

2. El Ayuntamiento de Erandio además de todas las obligaciones previstas por el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, para las personas beneficiarias de subvenciones, deberá realizar los trabajos de acondicionamiento y equipamiento local adyacente a la Biblioteca Municipal en la calle Legazpi, nº 2, y la posterior puesta en marcha del servicio *BiziPark-Erandio*. Además, se compromete a gestionar en sede local todas las licencias y autorizaciones que, a los efectos del objeto del presente convenio, resulten legalmente preceptivas.

Dicho espacio tendrá como mínimo el siguiente equipamiento:

- Aparcamiento para al menos 70 bicicletas.
- Software de gestión, incluida conexión vía internet y, en su caso, sistema de control de accesos.
- Iluminación interior permanente.
- Al menos 16 taquillas de seguridad ignífugas con toma eléctrica individual.
- Sistema de vigilancia mediante cámaras conectadas con el servicio de seguridad de la Policía Local.
- Personalización del espacio siguiendo las indicaciones de Diputación Foral de Bizkaia para la imagen de los Bi-



ziparken irudirako.

3. Behin *BiziPark-Erandio* zerbitzuaren erabilera eta funtzionamendu-araubidea adostuta, Erandioko Udalak bere gain hartuko du hura kudeatzea eta mantentzea, gutxienez hitzarmen honen indarraldian.
4. Mugikortasun Zuzendaritzak hitzarmen honekin helarazten du "Bizikletetarako aparkaleku seguruaren zerbitzua eskuratu eta erabiltzeari buruzko baldintza orientagarri ez-lotesleak" dokumentua, non jasotzen baitira, orientazio gisa, erabiltzeko modalitateak, erabilera-kanona eta beste orientazio batzuk.

#### **HAMABOSGARRENA.- EMANDAKO DIRULAGUNTZAREN ZABALKUNDEA**

Erabilera, informazioa edo Bizipark-Erandio zerbitzuarekin zerikusia duen beste edozein motatako sustapen-kanpaina publiko orotarako, lehenatasunez erakutsi beharko dira Erandioko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoak, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntza beren-beregi aipatuz.

#### **HAMASEIGARRENA. - HITZARMENA ALDATZEA**

- 1.- Hitzarmen hau aldatzeko, bi alderdiek ados jarri beharko dute eta dagokion espedientea izapidetu.
- 2.- Espediente horretan, nahitaez, txosten tekniko justifikatzaile bat egin beharko da, aldaketaren beharra eta egokitasuna aztertzeko eta 40/2015 Legean edo hura ordeztzen duen arauan aurreikusitakoa betetzeko.
- 3.- Eragindako administrazio bakoitzeko organo eskudunek onartzen dutenean amaituko da aldaketa-prozedura.

zipark de Bizkaia.

3. Una vez acordado el régimen de uso y funcionamiento del *BiziPark Erandio*, el Ayuntamiento de Erandio asumirá la gestión y mantenimiento del mismo durante, al menos, el plazo de vigencia del presente Convenio.
4. La Dirección de Movilidad facilita junto con el presente convenio el documento titulado Condiciones orientativas no vinculantes de acceso y uso del servicio de aparcamiento seguro para bicicletas donde se recogen a título orientativo las modalidades de uso, el canon por utilización, y otras orientaciones.

#### **DECIMOQUINTA.- DIFUSIÓN DE LA SUBVENCIÓN CONCEDIDA**

Toda campaña pública de promoción del uso, información o de cualquier otro tipo relacionada con el Bizipark – Erandio deberá mostrar en lugar preferente los logotipos tanto del Ayuntamiento de Erandio como de la Diputación Foral de Bizkaia, haciendo expresa referencia a la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia.

#### **DECIMOSEXTA. - MODIFICACIÓN DEL CONVENIO**

- 1.- La modificación del presente convenio requerirá el acuerdo de ambas partes y la previa tramitación del correspondiente expediente.
- 2.- En el mencionado expediente, necesariamente deberá emitirse un informe técnico justificativo en el que se analice la necesidad y oportunidad de la modificación y el cumplimiento de lo previsto en la Ley 40/2015 o norma que la sustituya.
- 3.- El procedimiento de modificación finalizará con su aprobación por los órganos competentes de cada una de las



Administraciones concernidas.

## HAMAZAZPIGARRENA - ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Hitzarmen honi aplikatu beharreko araudian aurreikusitako zehapen-araubidea izango da aplikagarria. Zehazki, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan ezarritakoa.

## DECIMOSÉPTIMA. - INFRACCIONES Y SANCIONES

Será de aplicación el régimen sancionador previsto en la normativa que resulta de aplicación al presente convenio. Concretamente, el previsto en el título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

## HAMAZORTZIGARRENA.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEA

Erandioko Udalak konpromisoa hartzen du indarrean dagoen araudian jasotako irisgarritasuna sustatzeko neurriak hartzeko, bereziki, oztopo arkitektonikoak kentzeari, garraioako irisgarritasunari eta komunikazio-sistemetakoa irisgarritasunari dagokienez.

## DECIMOCTAVA.- PROMOCIÓN DE LA ACCESIBILIDAD

El ayuntamiento de Erandio se compromete a adoptar las medidas de promoción de la accesibilidad contempladas en la normativa en vigor, especialmente, en lo relativo a la eliminación de barreras arquitectónicas, accesibilidad en el transporte y accesibilidad en los sistemas de comunicación.

## HEMERETZIGARRENA. - EZTABAIDAK ETA JURISDIKZIO EREMUA

Alderdietako batek uste badu besteak ez dituela bere betebeharrak bete, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan demandatu ahal izango du bestea. Errekurtsoa jarri aurretik, alderdi batek besteari eskatuko dio 15 eguneko epean bete ditzala bere ustez bete ez dituen betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan oraindik ez badira bete, alderdi eskatzaileak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du zuzenean. Errekurtso horretan, alderdi demandatzaileak hitzarmena betetzea edo suntsiaraztea eskatu ahal izango du, eta, osagarri gisa, eragindako gaitz-kalteengatik kalte-ordaina.

## DECIMONOVENA. - CONTROVERSIAS Y ÁMBITO JURISIDICCIONAL

En el caso de que una de las partes considere que la otra ha incumplido las obligaciones que le incumben, podrá demandar a la otra ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. Con carácter previo al recurso, cualquiera de las partes requerirá a la otra para que en el plazo de 15 días cumpla con las obligaciones o compromisos que considere incumplidos. Si transcurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte requirente podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo. En dicho recurso, la parte demandante podrá pretender el cumplimiento del convenio o su resolución y, complementariamente, una indemnización por los daños causados.



## HOGEIGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKO VIGÉSIMA. - REGIMEN JURIDICO APLICABLE APLIKAGARRIA

Dirulaguntzen hitzarmen honi honako hauek aplikatuko zaizkio:

- a) 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena.
- b) 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duena.
- c) Hitzarmena bera.
- d) Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Serán de aplicación al presente convenio subvencional:

- a) La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.
- b) El Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones.
- c) El propio convenio.
- d) Las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

## HOGEITA BATGARRENA.- DATU VIGESIMOPRIMERA. - PROTECCIÓN DE PERTSONALEN BABESA DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Sinatzaileek honako hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute: alde batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamendua dela-eta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; bestetik, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; azkenik, datu pertsonalak babestearen arloan indarrean dagoen gainerako araudia.

Las partes firmantes se comprometen a cumplir con lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como en el resto de la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

## HOGEITA BIGARRENA.- GENERO- VIGÉSIMOSEGUNDA - PERSPECTIVA DE IKUSPEGIA GÉNERO

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren

De acuerdo con la normativa vigente en materia de igualdad de mujeres y hombres,





arabera. alderdi sinatzaileek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko konpromisoa hartzen dute hitzarmen hau behar bezala betetzeko egin behar diren jarduera guztietan.

### **HOGETA HIRUGARRENA. - INDARREAN SARTZEA ETA IRAUPENA**

Hitzarmen hau formalizatzen den unean jarriko da indarrean, eta hitzarmenaren ondoriozko betebeharrak betetzen direla egiaztatu arte egongo da indarrean, hitzarmen honen seigarren eta zazpigarren klausulan xedatutakoarekin bat etorritz.

Eta, ezarritakoarekin bat etorritz, bertaratuek dokumentu hau sinatzen dute.

las partes firmantes se comprometen a promover la igualdad de mujeres y hombres en todas aquellas actuaciones que se precisen desarrollar para el adecuado cumplimiento del presente convenio.

### **VIGÉSIMOTERCERA. - ENTRADA EN VIGOR Y VIGENCIA**

Este convenio entrará en vigor en el momento de su formalización y su vigencia se extenderá hasta la verificación del cumplimiento de las obligaciones derivadas del mismo, de conformidad con lo dispuesto en la cláusula sexta y séptima del presente convenio.

Y, de conformidad con lo establecido, firman las personas comparecientes el presente documento

